

(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

1. Nor manusetuko da?
2. Nakerok malizunberi bat egin dea?
3. Zuen ustez zerorako gelditu dia borrokatik?

(II) BI MAKILA BIDEAN 4

Heien bien ukaldiek... *jendea* zuten bilatzen, bainan... makila baizik ez kausitzen sekulan!... Ezker, eskuin, gainetik, azpik, sahieska, xuxenean ala zeiarka, nihun ezin lotkiarik¹² atzeman!...

Haaa! orroaz heien bulharrak, ukaldia emaitean, oihanean haizkolarienak bezala! *Fiu, fiu!* xixtuka aldiz heien makilak!... Eta gero, *kask*, doi doiako amor ttipiena gabe, makilak makila koskatzean...

Oren laurden harten hola ari ziren, tokiaren gainean; (hurrats batez, zehe batez elgarten ganik baztertu czpaitziren ephe luze harten guzian! Izerditan biak, bainan, bethi berdin tenpuan; eta lehenbiziko zarrasta¹³ edo aztaparkatzerik arineña elgarri oraino egitekoal!...

—Brien arina, oraikoan, hatik, atzemaiter nuzu, Piarre!

—Ez dakit, Nakerio, berantxegi ez nizanez bethi jeikiren hortako...

—Baditake, Piarre... Errazu, Piarre? eta, hori erraitean, idi bat puskatuko zuen ukaldia ekartzen dio Piarreri...

—Zer duzu, Nakerio? eta, berc makila han zuen orduko Piarrerek, Nakeroren makilari trebes emana, burdin palanga bezen bihurri...

—Oren erdi hantan egin ez duguna, nola eginen dugu oren baten buruan?... Berdin ahul orduan, ala berdin azkar, orai, ez othe da *bethi berdin* izaitea? Elgarren neurrikoak girela, ez othe dugu erakutsi, Piarre? Joan baginte biak... Maiderrenat?...

—Goazen Maiderreat, Nakerio... Egarritua ere niz bulta hantan...

Eta, sorgin ixtorioetan Zafra-Maria-Zafra makila bezala, orduan bakarrik, eta solas hoik oro bi adixkideek elgarri erranik, orduan aphaldu ziren eta gelditu Piarre eta Nakeroren makilak!...

Esku-gibelaz, doi doia xukatu zuten kopeta gure bi Garaztarrek, eta —ilhargia irriz heieri gain hartarik zagola— barneko motxa sorbaldari beheiti, *makilak herrestan* joan ziren Maiderrenat...

— BI MAKILA BIDEAN-ren ORITZA.

TABAKO-BELHAR TIZANA 1

Jainkoak ez zuen bada pipatzaile kreatu! Hogoi-ta hamabortz urthe segurik bazituen Leonek, lehenbiziko zigarreta egin zuelarik. Ordu arte, jaten zituen ezteietarik ekartzen zuen doi doia, jaun esposak eman zigarro erhaztunarekilako bat, eta hora ere adixkideentzat.

(III) ADITZ IKASKUNTAZA

31. Atzemaiter nuzu 32 Baditake

33 Joan baginte 34. Hartarik zagola

MUKAN - Conj. transitive à cpl. direct

Indicatif présent - Cpl. dir. mi = mo

Zuk nauzu (nuzu) = Vous m'avez

Harek man (nu) = Il m'a

Zuek nauzue (nuzue) = Vous m'avez

Heiek maute (nute) = Il m'a.

Indicatif imparfait

Zuk minduzun = vous ne aviez

Harek minduen = il m'avait

Zuek minduzuen = vous m'aviez

Heiek minduten = ils m'avaient

32 IZAN - Potentiel Présent

Ni igan maiteke (mitake) = Je peut être

Hi " haiteke = tu peux être

Zu " zaitezke = vous pouvez être

Hura " daitzke (ditake) = il peut être

Gru " gaitezke = nous pouvons être

Zuek " zaitezkete = vous pouvez être

Heiek " daitzke = ils peuvent être

33 IZAN - Eventuel 2ème forme

(si j'étais)

Ni igan banindadi si j'étais

Hi " banindadi {

Zu " bazinte }

Hura " balade etc.

Gru " bagintze éventualité

Zuek " bazintegite éloignée